

kal-aditza izan zan; onena beriz, aste, il ta urte aroaren izenak.

III.—Azkue jaunak irakuñi digu alako idazkitxo bat, esanik, Euskaltzaindia esker-zořetan dagola, geon artetik oraintxe joan zaizkigun bi gizon argitsu-uen ganontz. Bata Aureliano Galartza da. Gizon oni zor zaizkio Bizkai-Aldundiak ipiñi zuen euskeraren ikastaroaren lenbiziko oñak. Ofegatik Azkue jaunak beroni eskañi dio berak idatzirik daukan irakurgai *Latsibi*. Au ez da oraindik argitaratu eleztizalerik azaltzen etzaiolako: egileak noski gipuzkeraz idatziko balu, izango luke nork argitara bota. Beste gizon omengafia Juan Karlos Gortazar da. Onek, areta aundiz, Azkue jaunari lagun egin zion, bai Peru-Abarkaren itzulpenean, bai *Eguzkia nora* deitzen dan antzerkian, bai *Iztegi Aundiaren* lenbiziko lanetan.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, amaitu da, otoitz egiñik, batzařaldia.

Bilbo'n, Bizkai - Aldundian, 1928'ko Ofiřa'ren 15'an.

Batzařaldira auřekoak eta Gabriel Manterola urgazlea datoz.

I.—Jořaiřa-ren lenbiziko egunez amaitu zan *Euskal-Zenbakintza* gai duten lanen epea. Lan abek aztertzeko izendatu zan batzordeak, bere erabakia dakar. Bi lan etoři dira: bat euskeraz idatzia; bestea alemaneraz. Ez batak ez besteak ez dute epailleen gogorik bete, utsune batzuk badituztelako ta naiko ezagun zitzazkien oarvide batzuek aitatu ez dituztelako. Ala ere, saritu nairik egile-lanak, badutelako beste alde beren osamena, auxe erabaki da: 350 peseta emango zaiz-

kio Giese jaunari, bere alemanerazko lanagatik: 150 peseta Jose Zabala-Arana apaiz jaunari bere euskerazkoagatik.

Urteroko *Schuchardt sari* auxe datoñen urtean irakurgai (novela) lan bati emango zaio. Irakurgai au edozein euskalkitan idatzi liteke ta datoñen Joñaila-ren Irako biali bear dira onetariko lan guziak Euskaltzaindiaren etxera, Ribera 5, Bilbao, beste batzaldietan izan oi diran araupidez.

II.—Altube jaunak irakuñi digu Aita Eñomaldo Galdoz-en *Yosukistoren nekaustea*-ri dagokion txosten bat. Txosten onek aita Galdoz-en lana onesten du. Gipuzkoa-ko Aldundiak, auxe dala-ta, geon iritxia eskatu digu. Euskaltzaindiak, erantzupenez, Altuberen txosten oneslea bialiko dio.

III.—Azkue jaunak bi lan irakuñi dizkigu: bata *Neoflexismo*, au da oraingo idazleak an eta emen darabizkiten adizkera beñiak; ta beste bat eñiak oitu oi dituen neurtizkerak.

IV.—Altube, Eguskitza, Intza ta A. Inazio Ajangiztañak iztegi beñirako itz beñi batzuek ekañi dizkigute. Aita Intzak, gañera, euskal-esaera zefenda beñia.

V.—Luze ta astun itz egin da iztegi beñi ta *neologismoz* ta erabaki batzuek artu ere bai, batzordearen geroko lanetarako.

VII.—Lakonbe jaunaren, bidez, Bretona-tar Iztegi bat datorkigu, angoxe Izkuntzaindiaren eskeñiz. Eskeñak agertzen zaizkio.

VII.—Euskaltzaindiak, atsekabezko oroimenaz aipatu ditu orain gutxi il zaizkigun gure urgazle Lardizabal Aita ta Aureliano Galartza jauna (G. B.).

Ta beste gairik izan ez da otoitez amaitu da batzañaldia.
